

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen::

10. 2025EKO ATLETISMOKO, LANDAREKO ETA ZUBIPEKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO HITZARMENAREN 1. ORDAINKETA ORDAINTZEA

Alkatearen 2021/359 dekretuaren bidez eta 2022/111 dekretuaren bidez, Landareko kirol instalazioak Hernani Club Rugby elkarteari lagatzea onartu zen. Alkatearen 2021/360 dekretuaren bidez eta 2022/112 dekretuaren bidez, Zubipeko kirol instalazioak Club Deportivo Hernaniri lagatzea onartu zen. Alkatearen 2021/361 dekretuaren bidez eta 2022/110 dekretuaren bidez, atletismoko pista eta bertako kirol instalazioak Club Deportivo Hernaniri lagatzea onartu zen.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko otsailaren 13an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du

Lehena.- Hernaniko Udalaren eta Hernani Club Rugby elkartearen arteko dirulaguntza hitzarmenari dagokion diru kopurua, 38.830 euro, onartzea. Hernaniko Udalaren eta Club Deportivo Hernani elkartearen arteko dirulaguntza hitzarmenari dagokion diru kopurua, futboleko atalari dagokiona, 40.800 euro, onartzea. Hernaniko Udalaren eta Hernani Club Rugby elkartearen arteko dirulaguntza hitzarmenari dagokion diru kopurua, atletismoko atalari dagokiona, 3.610 euro, onartzea. Guztiak ere udal aurrekontuko partida honen kargura: 1 2010 481.03.341.00 2025 (4569) A-177/2025.

Bigarrena.- Horren ondorioz, eta hitzarmeneko estipulazioen bosgarren puntuan jasota dagoen moduan, lehenengo zatiaren ordainketa bideratzea, hau da:

%60 instalazioen mantentze eta zainketa lanen gastuetarako:

- Landare: 23.298 euro
- Zubipe: 24.480 euro
- Atletismoa: 2.166 euro

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Club Deportivo Hernani elkarteari, Hernani Club Rugby elkarteari eta kontu-hartzailetza sailari.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko otsailaren 20an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: ESKU745895e0-2ccd-4e4a-b70d-4bbd607c5369

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>